

## Senderos de pequeño recorrido del PARQUE NATURAL DE URKIOLA

Javier de la Cruz

**A**UNQUE los montes de Durangaldea abarcan un área más extensa, la mayor parte de los Senderos balizados de esta comarca transcurre dentro del Parque Natural de Urkiola, un Parque que cuenta con 5.768 ha. y que fue creado como tal en 1989. Es una zona de gran interés histórico, geográfico y paisajístico que merece la pena conocer. Para ello la Bizkaiko Mendizale Federakundea ha publicado la topoguia "Senderos de Urkiola" en la que se recogen todos estos recorridos.

Es este lugar una encrucijada de caminos, ya que aquí se entrelazan cuatro grandes recorridos como son el GR-123 "Vuelta a Bizkaia", GR-12 "Senda de Euskal Herria", GR-121 "Vuelta a Gipuzkoa" y el GR-38 "Ruta del vino y del pescado", que atraviesan el Parque a la vez que los pequeños recorridos.

Estos recorridos son unos trazados balizados, que atraviesan todo el territorio del Parque y sus alrededores, están ideados para que cada uno escoja el itinerario que más le guste o se ajuste a su necesidad, haciendo bucles. Es decir, salir de un lugar y enlazar diversos senderos para volver al punto de partida. Por ejemplo, si estamos en el puerto de Urkiola y al finalizar queremos regresar a él, podemos utilizar el PR-BI 201 hasta la campa de Guenzelai donde cogeríamos el PR-BI 202 hasta el collado de Asuntza y tomando el GR 12, regresaríamos a Urkiola. Como este ejemplo existen unas cuantas alternativas utilizando los PR y los GR que atraviesan la zona, eligiendo a nuestro gusto y manera el recorrido que más nos interese creando nuestro propio recorrido balizado. A la vez, estos recorridos sirven como aproximación a las bases de estos impresionantes montes, desde los que se divisa un paisaje incomparable. No se trata, por lo tanto, de un conjunto de rutas para hacer cumbres, sino de unos itinerarios que nos permiten conocer el Parque Natural de Urkiola y recorrer sus paisajes, con una relativa comodidad y sin grandes esfuerzos.

### PR-BI 201 "PTO. URKIOLA - ELORRIO"

Este sendero, que comienza en el puerto de Urkiola, tiene una gran longitud, que si lo deseamos se puede dividir en tres tramos lógicos que serían: Urkiola-Mañaria, Mañaria-ermita de Santiago, y ermita de Santiago-Elorrio. Sin embargo es factible realizar los 38 Km en una sola jornada.

El sendero empieza en el puerto de Urkiola y tras pasar junto al Centro de Interpretación del Parque, comienza a ascender hacia el monte Saibi, famoso por la batalla que en él se libró en 1937 y por el monumento a los gudaris que alberga su cumbre. Desciende luego al collado de Iturriotz, rodea después el monte Errialtabaso, cruza el collado de Ifungana y asciende hasta las inmediaciones del Leungana siguiendo un viejo camino de herradura, para descender por el collado de Mugarrakolanda hasta Mañaria.


El segundo tramo del sendero comienza ascendiendo a la ermita de San Martín y tras rodear el Unzillatx por su vertiente más espectacular, desciende a Atxarte por el collado de Elosu. De Atxarte sube de nuevo a otro collado, esta vez el de Artola, que nos permite cruzar con facilidad entre las peñas de Astxiki y Alluitz. De aquí desciende por una vieja ruta de pastores al barrio de Axpe, para llanear a continuación hasta el barrio de Santiago, en el corazón del valle de Atxondo.

El último tramo pasa por Arrazola. Desde aquí remonta la cabecera del valle de Atxondo hasta Besaide, una de las cumbres más queridas de los montañeros vascos, ya que

▲  
Arriba.  
Casterío del  
Anboto al Mugarra  
desde Besaide  
A la derecha.  
Monumento de  
Besaide  
Debajo.  
Caserío Ollargan  
(Arrazola). El  
caserío más  
antiguo de Bizkaia  
▼



### PR-BI 201 "URKIOLA-ELORRIO"







en ella se celebra todos los años el Día del Recuerdo en homenaje a los fallecidos en montaña. Por último desciende del Besaide a la histórica villa de Elorrio, donde termina este sendero.

Este sendero cuenta con dos variantes que parten del pueblo de Arrazola el P R-BI 201.1 "ARRAZOLA-ZUMELA" con una distancia de 2,5 Km pra unir con el GR-123 en Zumela, esta variante nos lleva por una preciosa calzada entre hayas a la vera de un arroyo, que discurre entre el Anboto y el Andasto. Esta calzada era utilizada por las gentes del valle de Atxondo para subir a Urkiola. Y el PR-BI 201.2 "ARRAZOLA - ZABALANDI" con una distancia de 3 Km. para unirse al GR-

12 "Senda de Euskal Herria" en Zabalandi, subiendo en fuerte pendiente en su inicio por la ladera sur del Anboto, para una vez

tomada altura llevarnos a la pared vertical de la cara oriental pasando por debajo de la cueva de Mari.

### PR-BI 202 "GUENZELAI A SANTIAGO"

Este sendero bien podría haberse tratado de una variante del PR-BI 201 pero por su interés paisajístico a su paso por el collado Larrano ha sido considerado como un sendero propio. Cuenta con 7,5 Km, y partiendo de las campas de Guenzelai asciende por el hayedo de Amilla para llegar al collado de Asuntza donde giraremos subiendo al collado de Larrano en el cresterio que separa las cumbres del Anboto y Alluitz bajando después hacia el barrio de Santiago en el valle de Atxondo uniéndose de nuevo al PR-BI 201. A su vez cuenta con la variante PR-BI 202.1 "OLARRETA - COTA 890 DEL PR-BI 202" con una distancia de 2 Km, que sirve para unir el collado de Olarreta con el de Larrano por una pequeña senda, pero con gran desnivel que superar.


### PR-BI 203 "SENDERO DE ARAMOTZ"

Su intención es atravesar vertebralmente la sierra de Aramotz, saliendo de Durango para llegar a Zornotza con una distancia de 19,5 Km. Pasa por el barrio de Sta Luzia, para ascender por el paso de Kataska, estrecha canal que nos da acceso a las campas de Mugarrikolanda y a la fuente del Mugarra, desde donde atravesaremos la sierra de Aramotz hacia el NO, serpenteando de dolina en dolina y pasando junto a los montes Askorri, Kortatxu Haitza y Gain-txorrotz para salir a la ermita de San Ignacio en las campas de Belatxikieta. Este itinerario atraviesa una zona kárstica en la que a veces es difícil la orientación, sobre todo con niebla. También posee la variante PR-BI 203.1 "BELATXIKIETA-LEMOA" de 6 Km. Esta es una variante que nos aleja de la zona del Duranguesado para bajar al próspero valle de Arratia.

Todos estos senderos de Pequeño Recorrido suman un total de 78,5 Km balizados que, unidos a los de Gran Recorrido, nos dan unas posibilidades increíbles para disfrutar y conocer las maravillas de este paraje de nuestra tierra. Esperamos que disfrutéis paseando por estos preciosos lugares de la "pequeña Suiza" que es el Parque Natural de Urkiola. □



FOTOS DEL AUTOR





# QUITARRAJUN BIDE BERRIA


Gaizka Abanzabalegi

"ARGIPALUPOSTIE"

**A**ZKEN uda honetan herriko lau lagunak Peru aldera bidaia egitea erabaki genuen. Patxik eta Gonzalok, opor luzeak zituztenez, uztailaren lehenengo hamarkadan

Euskalerrria utzi eta harantz jo zuten, Peru (hegoaldea, Kosta, eta abar...) piskat ezagutzeko asmoz. Gu aldiz, Unanue eta ni, abuztua bakarrik libre izanik, uztaila bukaeran herria utzi eta beste biekim Liman elkartu ginen, handik hurrengo egunean Huarazera joateko asmoz. Huaraz esan genezake Peruko Chamonix antzeko bat dela, Perukoa izateak ematen dion berezitasunekin, noski.

Huarazen hogeitamar egun inguru egin ondoren, horietatik hogeitau mendian, hiru kebrada ezagutu genituen, hoietatik bat ia ezezaguna. Mendian nahiko ibili ginen, bai eguraldi txarrarekin eta bai onarekin, eta Quitarrajun, ipar ekialdeko horman lehenengo igoera bat izan daitekena egin genuen. Hauxe da bide berri hau egin genueneko egun horien salta: sentsazioak, burutapenak, nekea, moskeoak, kolejismoa, "risak"...



Ogei egun daramazkigu Cordillera Blanca inguru hontan eta bi kebrada ezberdinetan izan gara. Lehenengo Llanganukon, aklimatazioa egiteko asmoz. Han Yanapacha mendia igo dugu eta baita oso oso eguraldi eskasa izan ere: egunero elurra eta oso eguzki gutxi.

Bigarren Rurec kebradan. Honek benetan aipamen berezia merezi duela uste dut. Inor ez dabil kebrada hontan. Haitzean eskalatzeko sekulako posibilitateak ditu (granitozko sekulako dorreak, 600 m. ingurukoak) eta, era berean, mendia egiteko, nahiz eta mendi nahiko ezezagunak izan, politak eta "pinoak" dira.

Eta honetaz aparte, ba problema intestinalak, eta peruanoen izaera bereziaz ere konturatu gara 20 egun hauetan.

## Berriro mendira

Eta berriro mendira, Huarazen 3 egun pasa ondoren, ondo jan, kaka gogortu, erosketak egin... eta euria hasi du Huarazen; kaka!, gaur irtezea pentsatzen genuen, baino biharko utzi beharko dugu Santa Cruz kebradarako bidaia.

Hurrengo goizean beste bi kebradetara joateko egin dugun mobida guztia hauxe da: "kolektiboa"<sup>(1)</sup>, kasu honetan Caraz-eraino; gero "konbia"<sup>(2)</sup>, kasu honetan Cashapamparaino. Bertan arrieroarekin astoen prezioa negoziatu eta kanpamendu baseraino trekking eroso eta polit bat eginez, bi egunetan helduko gara.

1) "Kolektiboa": jendea eramateko "prestaturik" dauden furgona txikiak, merkeak direnak jendez gainezka doaz. Giro herrikoia bermatuta.

2) "Konbia": Kolektiboaren antzerkoa baina bere espezialitatea asfaltorik gabeko bideak eta menditik zeharreko pistak dira. Todo terrenoa izan daiteke edo ez.

▲  
Goiko aldean.  
Quitarraju 6036m.  
Goiko aldean, eskumatara.  
Kolladuko kanpamendua  
Beheko aldean.  
▼  
Taldea osoa

Santa Cruz kebrada, nahiz eta ezaguna eta nahiko jendetsua izan, oso ederra da eta kebradaren azpikaldean landaretzak kutsu tropikal handia du, zeina garaierarekin batera galduz doan, noski.

Kanpo basera heldu gara, egun berean arrieroarekin aste bete barrurako gelditu ondoren, pisu guztia gainean kargatu eta morrena azpiko kanporaino igo dogu. Pentsatzen dugu aukera ona dela, igoera K.B.-tik M.K.-ra ez da ez motza ezta erraza ere, baina hurrengo egunerako asko aurreratzen da. Morrena kanpotik glaziar apurtu eta oso polit batetan zehar beste etapa batean kanpo kolladura iristen gara. Izenak ongi dioen bezala kanpo hau Alpamayo eta Quitarraju arteko lepoan montatzen da, lekua polita eta eroso izanik eta bertatik Alpamayo eta Quitarrajura bista oso onak izanik.

Bi dendak montatu eta ura urtzen den bitartean, fotoak atera eta inguruko mendiak begiratzen pasatzen dugu denbora. Eguraldia ez da guztiz ona, baina orain arte eduki dugunarekin konparatuz ez dago gaizki eta afaldu bitartean bihar Alpamayo saiatuko dugula pentsatu dugu Unanuek eta biok. Ba hori, hurrengo goizean goizeko errrutina, gauetz oraindik zerbait jan, jantzi, beharrezkoak artu eta abiatu gara; baina elurra guztiz sakona dago eta errimiaraino ordu bete beharrean hiru ordu egin ditugu.

"Niño"<sup>(3)</sup>, kabroi honek kordillera Blanca ankar gora utzi du eta guri parean tokatu behar! Errimaian beste egun baterako utziko dugula erabakitzen dugu eta guztiz nekaturik (Unanue batez era, berak zabaldu baitu honainoko huella guztia) kanpamendurako bidea hartzen dugu, glaziarrek, bere grieta handiak zalapartatsuki zabalduz, gutaz farre egiten duen bitartean.



3) "Niño": Gutxi gora behera 8 urtetik behin tokatu ohi den fenomeno meteorologiko arraroa. Klima berotu eta prezipitazioak gehitu egiten dira Kordillera Blanca inguruan. Guri tokatu behar!





ARGAZKIAK: GAZTA ABANZABALEGI

## Bide berria

Egun guztia parean izan dugun Quitarrajuri begira nago orain ere eta Alpamayo bere anaia txikiaren itzalean bizi den Quitarraju zein handia eta ederra den konturatzen gara, eta Unanueri bihar saiatuko al dugun komentatzen diot. Lehenengo aurpegi arrarua ipini dit baina segituan animatu da eta hurrengo goizean, gosaldu, jantzi eta beharrezkoa hartu ondoren bideari ekingo diogu.

Bide normala "Quitak" erdian duen haitzezko espoloi baten eskuinetik doa baina guk ezkerretik joatea erabaki dugu zuzenago eta politagoa iruditzen bait zaigu. Errimaiaraino ordu bete egin ondoren sartu gara horman eta 7 ordu-tan 60°-70° izotzean eta zati mixto motz bat eskalatu ondoren, gehiena ensanblean nahiz eta luze batzuk aseguratu genituen, gailurrera iritsi gara. Goian ez dago ezertarako lekurik, beraz, aristan "a kaballito" eseri, foto batzuk atera, zerbait jan eta beherantz rapela montatzen hasi gara.

Jaitsiera, guk normala deitu diogun bidetik egitea erabaki dugu, zintak eta estakak aurkituko ditigulakoan, eta eskerrak horrela izan dela, zeren estakaz nahiko justu genbiltzan. Es dakit zenbat rappel egin ondoren, plataforma hain gertu izanik eta bi rappel besterik falta ez direla, lainoa sartu, elurra hasi eta gaua gainera etorri zaigu, eta hama-bi bat ordu eskalatzan eta rappelatzen ibili ondoren, glaziarreko plataformatik 80 m. eskasetara, paretan dagoen granitozko "makro-txina" baten gainean gaua pasatzeko prestatu behar. Eta dena aitortzea kostatzen zaidan nagikeriagatik, frontalak ez hartzeagaitik. Gu behintzat ez gara alpinismo serio eta profesional horren adibidea, zozo batzuen adibidea baizik. Ez dut minutu bat bera lo egiten gau honetan. Unanuek burutadaxo batzuk egiten ditu, baina goizaldean ekialdetik argia ikusten dugunean zoriontsuak gara; 6100m. inguruko mendia eskalatu dugu bide zuzen, elegante eta berri batetik (nahiz eta berria zenik guk orduan ez jakin, "casa de guias"-en esan bait ziguten berria zela) eta horretaz gain 5300 m. ingurura, -12 C°-ara zaku gabe gau bat pasatu dugu eta osorik eta osasuntsu gaude. Beraz, gure barnean poz sentazio lasaigarri bat sentitu dugu, orain eguzkia irten denean. Falta zaizkigun bi rappelak egin eta plataforman Patxi ta Gonzalo zain daude, ura urtu eta te beroa gaileta eta txokolatekin preparamu dute, lagunak zertareko dauden ondo

demonstratuz. Besarkada batzuk, komentarioak eguzki epeletan, jan eta edan parparatu dutena, eta bagoaz laurok kolladuko kanpamendurantz.

Hurrengo badakizue: dena batu, K.B.-ra jeitsi eta han arrieroarekin bildu eta hurrengo goizean egun osoko trekiña egin ondoren Cashasapanpara, handik "kombia" Caraz-era eta hemendik "kolektiboa" Huaraz-era. Hemendik aurrera Huarazen egin genuenak mendiarekin zer ikusirik ez duenez Pyrenaicaren ez dugu kontatuko, hau mendiko aldizkari serioa bait da.

P.D.: Gorantziak K.B. eta M.K.-an aurkitu genituen azkoitiarrei, eta segi bazterrak nahastuz! □

## FITXA TEKNIKOA

- **Quitarraju:** 6036 m.
- **Bidea:** Ipar ekialdeko horma haitzezko espoloiaren ezker aldetik
- **Desnibela:** 900 m.
- **Zailtasuna:** 70° izotzean eta zati txiki misto bat
- **Materia:** Estakak, zintak eta tornillo gutxi batzuk
- **Espedizioariak:** Iñigo Unanuek eta Gaizki Abanzabalegik egindako igoera 97-ko Abuztuaren azken egunetan.

